

Gibraltar.

Afrika alde batean, Europa bestean eta han bere parean haitza. Pirata baten abestia izan zitekeen, baina poetak beste alde batera begiratu zuen, nahiz eta leku gutxitan aurkitu hainbeste mito eta kondaira.

Gibraltar. Calpe deitu zuten erromatarrek, eta bertan ia ezer ez da dirudiena. Lurra itsasoan, inorena eta denona den itsasoa. Utrecht leku urrun eta arrotza da bere orainaren zioa.

Tximuak haitzaren atrakzio nagusietariko bat bihurtu dira. Britainiarrek Afrikatik ekarri zituzten, agian maskota gisa; baina liluragarria da kontinente batetik bestera ur-azpiko tuneletan mugitzen direnaren ideia. Itsasarteko mafiek beraien negozio makabroa arriskuz libratzeko ere aurkitu ez dituzten tunelak.

Itsasoz inguraturiko haitza. Mediterranearra oraindik? Atlantiarra jada?

Bizitzaz estalitako burdinen gainean joan-etorrian dabilzan urak.

Eta loreak diruditen animaliak, ia kaligrafikoak.

Eta dantzari errusiarrak gogorarazten dizkiguten poliketoen zakatzak.

Polipo garden etereoek bat-batean ortzadar bihurtzen diren hondo monokromatikoak ziprizontzen dituzte.

Itsasoa zeharkatu behar bada, hondoratutako itsasontziek erakuts dezatela bidea, zeren eta Herkules abiatu zen, baina ozeanoko urak sartzen uzteko haitzak banatu zituenean, bestaldean ilunpea eta kaosa besterik ez zela ikusi zuen, eta mugarri gisa utzi zituen bere zutabeak: Calpe eta bere ispilua Abila, Gibraltar eta Emakume Hila, toki hura lurreko azken muturra zela ohartarazten zuten zutabeak.

Badirudi leku honen esentzia, itsaso sakonean ere, anbiguotasuna dela.

Noizbait ontzi-jabearen harrotasun eta bere kapitainaren gloria izango ziren herdoilez estalitako hondakin mineralak, orain, eginkizun noblea, arraintzat bidezidor dira, algen ostatu, korronteen atsedeneku eta karramarroaren jolastoki.

Arrainek, ordea, nahiago dute txingoka jolastu: algaz tapizaturiko burdinak koadrikula eder, bigun eta eroso bat osatzen du.

Gorgoniak, krustazekoak, ekinodermatuak, muskuiluak... eta arrainak... milaka arrain, haitza begiztatu zuen Tariq hark suma ezin beste arrain. Bere amets bereberretan ez zegoen urarentzat lekurik. Baina mendi hura... bere mendia zen: Jabal Táriq: Gibraltar.

Europatik itsasoa bilatu nahi izan da beti. Afrikak, berriz, lurra aurkitu nahi izan du, beste aldeko lur hori. Kroniken arabera, harriak errubiez josita eta iturriek esmeraldak jariatzen zituzten lurra. Han, gailurrean Herkulesek eraikitako kobre eta harrizko itsasargi bana zeuzkaten zutabeen beste aldean.

Aristoteles, Herodoto, Masudi, Herkules, Don Julian, Tariq, ia sakratutzat har daitekeen historia batentzako izenak, transakzio arruntekin nahastuak orain, zabaldu eta itxi egiten diren burdin hesiak, negozio batzuetan aitorgarriak, ikusi gabe elkar begiratzen duten bi kontinente, nahastu gabe elkar ukitzen duten bi itsaso. Gibralargo misterioa: mugak beti dira leku lausoak.

Itsasoan arrainek nahi dutenean eta nahi duten moduan gurutzatzen dute itsasartea, eta Gibraltar ez da haitz bat, zubi bat baizik.